

EURO-A DELA ETA

Gasteizen, 2001eko martxoaren 12an.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

Joxe Ramon Zubimendi jauna, JAGONET zerbitzuko arduraduna.

Adiskide hori:

Zuk bidalitako azken hizkuntza kontsultaren erantzuna ematera natorkizu lerro hauen bidez, *Euro* hitzaren inguruko zalantzak biltzen dituen kontsultarena, alegia.

Azpimarratuta eta letra etzanean datoz Gramatika batzordearen ustez hobestekoak diren formak (galderetan agertzen ez ziren aukerak dira batzuk):

- a) *Txanponak eurotan* / Txanponak euroetan
- b) Txanponak euro centetan / Txanponak euro xentimotan / Txanponak euro xentimoetan / *Txanponak euro(-)zentimotan*
- c) Euro bat eta 5 xentimo / *Euro bat eta 5 zentimo*
- d) Euroaren 10 xentimo / *10 euro(-)zentimo*
- e) 2 *eurokoa*, 5 *eurokoa*, 10 *eurokoa*, 50 *eurokoa* / 2 eurotakoa, 10 eurotakoa, 50 eurotakoa
- f) Euroaren 2 xentimokoa / euroaren bi xentimotakoa / *2 euro(-)zentimokoa*
- g) 2 xentimokoa / 2 xentimotakoa / *2 zentimokoa*
- h) 5 xentimoko txanpona / 5 xentimotako txanpona / *5 zentimoko txanpona*
- i) Euroaren 5 xentimoko txanpona / euroaren 5 xentimotako txanpona / *5 euro(-)zentimoko txanpona*
- j) *5 euroko billetea* / 5 eurotako billetea
- k) *50 euroko billetea* / 50 eurotako billetea
- l) Txanponak: *1 euro* (jakina, ahoz “euro bat” esan beharrekoa) / euro 1
2 euro
euroaren xentimo bat / 1 xentimo / *1 euro(-)zentimo*
euroaren 2 xentimo / *2 euro(-)zentimo*
euroaren 5 xentimo / *5 euro(-)zentimo*
euroaren 10 xentimo / *10 euro(-)zentimo*

euroaren 20 xentimo / *20 euro(-)zentimo*
euroaren 50 xentimo / *50 euro(-)zentimo*

m) Billeteak: *5 euro*
10 euro
20 euro
50 euro
100 euro
200 euro
500 euro

Oharra:

Hitz elkartu bidez eman dugun egituran (*euro(-)zentimo*), denboraren poderioz lehendabiziko osagaia galduz joango delakoan gaude, eta *2 euro(-)zentimo* esan beharrean *2 zentimo* esango delakoan; hala ere, oraingoz hitz elkartu osoa emango genuke.

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, nahi duzun arte.